

① ELHEKETA. Aste HUNTAKO ELHEPIDEA.

- ① Urtebikoak atheka txarrean.
- ② Harrixurikoak jorratzen (hizun)
- ③ Beñaten egintzaren saria (recom...)

② INTZUR ONDOA

3

Ama-alabak ere jeikitzen dira eta tarrapatan penzterat abiatzen.

Zaldia uztarturik Joanes hasten da beharren biltzen mekanikarekin, Joanafio eta Maite pulatzen gibeletik zoin gehiagoka, begi zorrotz eta ilhun batzu itzultzen dituztela artetan zero alderat. Euria ez da urrun. Zer sapa lanho apal eta itsusi horien azpian!

Berehala ortzantza burrunhaka hasten da. Ximixtek, bat bertzearen ondotik, sutan emaiten dute, zipirti-zaparta, aire ilhuna.

Harrixuritiarrak leihotik so daude gaineko penzterat buruz. Harrixurik, sobera erakusterat eman gabe, ageri du zerbait atsegin hartzen duela bere auzoen tarrapatez eta egin ahalez.

« Erre balite bederen », dio bet-betan irri goxo batekin here semeari.

Orduan, brau, semea xutitzen da eta kanporat doa xixpa bat bizkarrean eta lasterka gaineko penzterat heltzen... Eta, hitz bat erran gabe, briu, brau, pulatzen hasten da.

Ortzantz eta ximixtek, ilun pean, egiten dute karaska eta su...

Pentzean lau jende ikaragarriko aro gaixtoarekin.

Biga leihotik so oraino, atherbean, berena gogoan, hek ere ixil-ixila...

Zirt! ortzia hantxet erori da. Langileak, ixilik, berenari ari dira. Zerua, samur da... Euria burrustan hasten eta lana utzi behar... Kopetak izerdi, behar-rak lohitzten ari.

Joanes hurbiltzen da Beñaten ganat eta erraiten dio, kasik nigarretan eta mintzoa daldaran: « Milesker Beñat, esker mila, haugi gure etxerat, gurekin afalduko hiz. »

Milesker, Joanes, etxean ere atxemanen dut ene gorputzaren doia. Ez du ene gorputzak hanbat sofritzen...

Bakotxa bere etxean sartu ziren euriaren pean.

★

Bi hilabeteren buruan bazen alegrantzia Urtebian eta Harrixurian, ezen buruilaren hogoi-ta-bian Beñat eta Maite ezkondu baitziren Jainkoaren aintzinean. Intzaur-ondoa aurtiki zuten eta herriko mahasturu hoberenari egin-arazi ganbara eder bat. Bi etxaldeak elgarretaratu zituzten, Eskual-Herriko etxalderik ederrena egiten zutela. Mekanikak erosi zituzten, etxeak lilia bezala ezarri eta alorrek eta Jainkoak, urte hartan bezala, eman zioten, beti, etxean koka ahala uzta eta zorion.

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. So daude 32 Erre balite.

33 kanporat doa 34 Erraiten dio.

31 EGON. Conj. forte - Indicatif.

Present

Imparfait

| | |
|----------------------|----------------------|
| Ni nago = jereste | N. mindagen = jeren |
| Hi hago = turestes | H. mindagen = tures |
| Zu zaude = os restoz | Z. zinauden = os res |
| Hura dago = | H. zagon = |
| Gru gaudu = | G. ginaudun = |
| Zuek zaudetzte = | Z. zinandezten = |
| Hek daude = etc. | H. zauden = etc. |

32 - IZAN. Eventuels.

1^{re} forme

2^e forme

(si j'étais) ^{en a}

(si j'étais)

| | |
|---------------------|----------------------|
| Ni izaiten banintz | Ni izan banindadi |
| Hi izaiten bahintz | Hi izan bahindadi |
| Zu -" - bazine | Zu -" - bazinte |
| Hura -" - balitz | Hura -" - baladi |
| Gru -" - bagine | Gru -" - baginte |
| Zuek -" - bazinezte | Zuek -" - bazintezte |
| Hek -" - balire | Hek -" - balite |

33 JOAN. Conj. forte - Indicatif.

| | |
|---------------------------------|-------------------------------------|
| Ni <u>PRESENT</u> noa = je vais | Ni <u>IMPARFAIT</u> mindoan = j'all |
| Hi hoo | Hi mindoan |
| Zu zoatzi | Zu zinoatziin |
| Hura doa | Hura zoan |
| u goatzi | Gru ginoatziin |
| Zuek zoazte | Zuek zinoazten |
| Hek doatzi etc. | Hek zoatziin et |